

Hondarribiko Ama Hondarribira

Deia, 1983-09-08.

Gaur beteko du Hondarribiako herriak, urtero bezala, ia hiru mende eta erdi egindako agintzaria edo promesa.

Zer promesa da hau?

Aipa ditzagun honetara heldu, aurretik puntu batzu; *Izena* ez da hemengoa, Begoña edo Arantzazu edo Estibalitz diren modura; *Guadalupeko* adbokazioa, Extremadurakoaren eraginez onartu zen hemen, izen handikoa baitzen hau garai hartan, gaur Lurdesekoa den bezalatsu. *Sortzez*, berriz, aintzinakoa da; ez Begoñakoa adina (1300an Bilboko Carta-Pueblak aipatzen du) baina bai, uste denez, Arantzazukoa (1496an) bezain aintzinakoa, eta seguru da Mexikokoa (1531) baino zaharragoa dela.

Bestalde, jai handi hau ez da beti egun berean ospatu.

Eta honek badi mirariarekin zerikusirik.

Lehenengoa, agerkundea bera izan zen; Jaizkibeleko mendi aldean bi artzaik aurkitzen duten imajina argiz inguraturik; hor jaso zen gero ermitatxoa. Harrez gero berritu eta Iruñeako gotzaiak emandako eskupidearekin bedeinkatu zuen Hondarribiako bikarioak 1581an, eta hala, hemendik aurrerakoan *martxoaren 25ean* ospatu zen *Guadalupeko Amaren jai*.

Bigarren miraria, frantzesek eragina izan zen: *1638an*, danborra joaz Hondarrabirantz abiatu zirela norbait konturatu zen bezain laster jaitsi zuen menditik burrila barruan zegoen herrira, eta Parrokiako elizako aldaretxo batetan kokatu zuten. Gerra luze zihoan, estua gainera, eta hondarribitar asko belaunikatzen zen Guadalupeko Amaren aurrean babes eske. Frantzesak gerra galdu zutenean. Hondarribitarrek, eskertsu promesa egin zioten; frantzesek suntsitu zuten mendiko ermita konpondu eta prozesioan igoko zutela imajina agertu zen toki berera.

Hirugarren miraria, hainbeste gauza egiteko, eta irudia hor zegoen parrokian, gora igo zain. Hala, goiz batez, imajinaren aldaretxoa hutsa aurkitu zutenean izutu ziren, lapurtu ote zuten, eta hara hemen hirugarren miraria; oraindik ondatua zegoen ermitatxoa aurkitu zuten. Herria larritu zen, frantzesak berriz etorriko ote ziren, eta egin behar zutena egiten hasi ziren: jaitsi zuten begirune handiz parrokira ermita berritu arte, eta, azkenik, agindu bezala, apirilaren 4ean igo zuten prozesio ederrean Guadalupeko Ama ermita berritura.

Eta herriak zin-eskeintza, Botoa, egin zuen, hurrengo urtean *1639an*; frantzesen aurkako gerra eman zien laguntza eskertzeko, *urtero, irailak 7, 8, 9an poz-jaiak eta prozesio ederra egingo zuela herri guztiak, gizon armatuak bertan su armekin airean tiroka, eta hitza bete egin zen.*

Eta betetzen da harrez gero debozio handiz.